

*Un nuevo Primero de Mayo cargado de incertidumbres y de retos. Nos corresponde, en primer lugar, felicitar la lucha militante e incansable de miles y miles de trabajadores y trabajadoras en la defensa de sus intereses. El Primero de Mayo suscita una ocasión singular de reconocimiento de esa lucha abnegada y militante de la clase trabajadora vasca ante la vorágine neoliberal y centralizadora. Es para ELA un enorme orgullo contar con una militancia dispuesta a dar lo mejor de sí, máxime en una coyuntura en la que pretenden acabar con todo.*

**Unos presupuestos que destruyen empleo.** El gobierno de Gasteiz ha planteado los presupuestos más duros de la historia. Con ellos aumentan el paro y la desigualdad a la vez que se incrementa la pobreza. La obsesión por el déficit- Urkullu acepta el límite del 0,7% fijado por Rajoy- y una política fiscal terriblemente injusta, acarrea más recortes y más pobreza. Unos presupuestos que, un año más, dejan sin negociación colectiva a los empleados y empleadas públicos. En caso de que no se aprueben se aplicarán igual. Es lo que sucede en Navarra y muestra el valor residual que ellos mismos otorgan a los Parlamentos.

**Otro regalo para la banca:** una nueva reforma de pensiones. La última reforma de pensiones de Rajoy apela al "envejecimiento activo" para, con un paro juvenil del 50%, alargar la vida laboral de quienes debieran jubilarse. También impone el "factor de sostenibilidad" para hacer más ajustes automáticos de las pensiones y destrozar el sistema público. Es cuando menos hipócrita que hablen de "sostenibilidad" cuando con sus decisiones ayudan a destruir empleo, bajan o imponen salarios de miseria, reducen cotizaciones sociales a la patronal y deciden que las pensiones se financien sólo con cotizaciones y nunca con impuestos. Todo ello favorece a la banca que ve su negocio en los fondos privados de pensiones.

**Una política fiscal injusta.** Los partidos políticos vascos han renunciado a dar a la fiscalidad la centralidad que merece, y una gran parte de la sociedad lo está pagando muy caro. Necesitamos reformas estructurales que desanden el camino recorrido los últimos años y apuesten por una política fiscal progresiva y justa. Sólo con aplicar la presión fiscal media de la Unión Europea recaudaríamos en Hego Euskal Herria 6.470 millones de euros más. También es preciso combatir la evasión a paraísos fiscales y luchar contra el fraude fiscal. Es evidente que sí hay alternativas y ELA las ha hecho públicas. Sin embargo, el debate fiscal está secuestrado por una élite que controla los partidos. Exigimos una política fiscal que se ponga al servicio de las necesidades sociales.

**Ajustar salarios sin límite.** Persiguen que menos personas trabajen más horas y ganen menos. A eso le llaman "aumentar la productividad y la competitividad". En realidad no dicen que lo que quieren es aumentar sus beneficios. Todo ello genera más desempleo y más empobrecimiento. Los salarios son un elemento clave en la distribución de la riqueza porque suponen demanda de bienes y servicios, mayor recaudación fiscal, mayores cotizaciones sociales...Dicho de otra manera, defendiendo los salarios se defiende la economía real, el empleo y la cohesión social.

**Una Patronal insaciable.** No contenta con las últimas reformas, la Patronal viene pidiendo una nueva para eliminar los últimos obstáculos que le quedan y dejar sin efecto los contenidos de los convenios. Llegan a afirmar que los presupuestos adolecen de "excesivo gasto social". Es indecente. Con todo, lo más llamativo es que nadie en los gobiernos levante la voz contra esta Patronal. Por otro lado, esta misma clase empresarial continúa utilizando el chantaje en las empresas y el desempleo como elemento de disciplina para maximizar sus beneficios. Es insaciable y está desbocada. Por ello no les vamos a dar ni paz social ni legitimación para acuerdos interprofesionales.

**Movilización sindical y social.** No hay otra vía, es imprescindible. El sindicalismo no puede ejercer de mero notario ante la voladura de todo lo social. Por ello, es necesario que los gobiernos y la patronal sientan mucha presión social. ELA considera imprescindible la convocatoria de una HUELGA GENERAL trabando alianzas entre quienes estamos dispuestos a hacer frente a este estado de cosas y a exigir un cambio de las políticas que nos han traído a esta situación de "catástrofe humanitaria". Es la mejor aportación del sindicalismo coherente en la conquista de una sociedad más justa. ELA está dispuesta a recorrer ese camino.

**Gora Maiatzaren Lehena**



*Aurtengo Maiatzaren Lehena ere zalantza eta erronkaz josita datorkigu. Hasteko, milaka langilek beren interesen alde egiten duten borroka militante eta nekazina goraiatu behar dugu. Maiatzaren Lehena aukera egokia da euskal langile-klaseak zurrumbilo neoliberal eta zentralizatzaileari aurre egiteko daraman borroka saiatu eta militantea aitortzeko. ELAk harro ikusten du duen onena emateko prest dauden militanteak dituela bere lerroetan, are gehiago egoera latz honetan, non daukagun guztia hankaz gora bota nahi baitute.*

**Aurrekontuek enplegua suntzitzen dute.** Gasteizko gobernuak historiako aurrekonturik gogorrenak egin ditu. Hauen ondorioz langabezia, desberdintasuna eta pobrezia hazi egingo dira. Defizitarekiko obsesioa -Urkulluk men egiten dio Rajoyk ezarritako %0,7ko mugari- eta zerga-politiko injustuaren emaitza murrizketak eta txirotasun handiagoa dira. Aurrekontu hauek, aurten ere, langile publikoak neogizazio kolektiborik gabe. Legebiltzarreko bozketa ez irabazita ere, aplikatu egingo dira. Hori gertatzen da Nafarroan; hor ikusten da agintzen dutenek zein eginkizun egozten dieten parlamentuei.

**Bankuentzako beste opari bat:** pentsioen erreforma. Rajoyren azken pentsioen erreformak "zahartze aktiboa" aipatzen du erretiratu beharko luketeen bizitza laborala luzatzeko, gazteen %50 lanik gabe dagoen artean. Halaber, "iraunkortasun faktorea" ere aplikatu nahi dute pentsioetan murrizketak automatikoak izan daitezen eta sistema publikoa txikitu. Hipokrisia hutsa da "iraunkortasuna" aipatzea beren erabakiekin enplegua galarazten dutenean, soldatak jaitsi edo jornal miserableak inposatzen dituztenean, patronalari kotizazioak jaisten dizkiotenean eta pentsioak finantziatzeko kotizazioak soilik erabiltzea erabaki dutenean (zergak inoiz ez). Honek guztiak bankuei egiten die mesede, pentsio-funts pribatuetan negozio aukera bikaina baitauka.

**Zerga-politika bidegabea.** Euskal alderdi politikoek baztertu egin dute fiskalitateari dagokion lehentasuna emateko aukera, eta gizartearen zati handi batek hau larrutik ordaintzen du. Erreforma estrukturalak behar ditugu, azken urteetan egindako bidean atzera egiteko eta zerga-politika progresibo eta bidezkoa ezartzeko. Europar Batasuneko batez besteko presio fiskala ezartzea nahikoa litzateke Hego Euskal Herrian zergatan 6.470 milioi euro gehiago biltzeko. Paradisu fiskalitarako ebasioa eta iruzur fiskala ere jazarri beharreko gaitzak dira. Argi dago alternatibak badaudela, eta ELAk plazaratu egin ditu. Halere, eztabaida fiskala elite batek bahituta dauka, alderdiak menpean dituen elitea. Zerga-politika beharizan sozialen zerbitzura jarri beharra dago.

**Soldata jaitzierak mugarik ez.** Jende gutxiagok lan egitea nahi dute, baina ordu gehiagoz eta soldata urriago baten truke. Horri esaten diote "produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea". Haatik, ez dute euren benetako intentzioa azaltzen, etekinak handitzea. Honek langabezia gehitu eta pobretzea areagotzen du. Soldatak oinarri-oinarrizko tresna dira aberastasuna banatzeko, beste hainbat aldagaitan ondorioa duten aldetik: ondasun eta zerbitzuen eskarian, bildutako zerga kopuruan, kotizazio sozialetan... Hots, soldaten alde eginez gero ekonomia erreala, enplegua eta gizartearen kohesioa defenditzen da.

**Patronal aseezina.** Azken erreformak aski ez bailiran, patronalak beste bat eskatzen du aurrean topatu dituen azken eragozpenak paretik kentzeko eta hitzarmenen edukiak indargabetzeko. Aurrekontuetan "gehiegizko gizarte-gastua" dagoela esatera ausartzen dira. Hau lotsagabekeria bat da. Halere, deigarriena da gobernu batek ere patronal honi kargu ez hartzea. Bestalde, enpresario-klase honek eutsi egiten dio xantairi eta langabeziaren mehatuari, enpresetan bere murrizketak ezartzeko eta etekinak ugaltzeko. Aseezina da, eta itsu-itsu jokatzen ari da. Horregatik, ez diogu bake sozialik, ez lanbidearteko akordioetarako legitimaziorik emango.

**Mobilizazio sindikal eta soziala.** Ez dago beste biderik. Mobilizazioa ezinbestekoa da. Sindikalismoak ezin du notarioarena egin, soziala den oro txikitzen ari direnean. Horregatik, gobernuak eta patronalek gizartearen presioa nabari behar dute. ELAk ezinbestekotzat jotzen du GREBA OROKORRA deitzea egoera honi aurre egiteko prest daudenean eta "giza-katastrofe" honetara ekarri gaituzten politikak aldatzea exijitzen dutenekin. Hau da sindikalismo koherenteak gizarte justuago baten alde egin dezakeen ekarpenik hoberena. ELA bide horri jarraitzeko prest dago.

**Gora Maiatzaren Lehena**

